




HERNANDEZ GOTORLEKUA
C MAILA**GUDAMENDIKO BIDEA ZG**

Egilea eta data: 1875. Pedro Lorente, ingeniari militarra

Deskribapena

Gotorleku erdi iraunkorra, 1875. urtean eraikia, Pedro Lorente ingeniari militarren proiektuaren arabera. III. Gerra Karlistaren testuinguruan eraiki zen eta Donostia-Hernani lineako gotorleku multzoaren parte da.

Gotorlekua lgedoko mazeletan kokatzen da eta oinplano pentagonala du. Hobi batek inguratzen du, eta bi kaponerarekin eta erdi kaponera batekin saihetsetik babestuta daude bost aldeetako lau; hartara, artilleriak hiru fronte ditu, eta fusileriak bi fronte ditu, harlangaitzeko horman osatutako saietaretan. Barruan hiru eraikin zeuden —kuartelari, zerbitzu erabilerako pabilioiari eta munizio biltegiari zegozkionak—, baita uharka eta janarien biltegia ere.

Gudamendiko instalazioek okupatutako zona horretan, askotariko hormak daude eta, haien itxurari erreparatuta, antzinako gotorlekuaren parte izan zitezkeen; haatik, gaur egun dagoen eraikuntzak eta dagozkion instalazioek lur higidura handiak eragin zituzten eta, segur aski, gotorlekuaren egituren zati handi bat lurperatu edo desegin zuten. Inguru horretan dagoen urandela, dorre bat simulatzen duena, 1939. urtean eraiki zen, eta baliteke gotorlekuko materialak berrerabilita egin izana.

Babes erregimena

1. Erregimen orokorra.
 - Plan Berezi honen C babes mailan integratzearekin loturikoa.
2. Berariazko erregimena.
 - A. Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: ez.
 - B. Elementu edo zati iraunkorrak: kontserbatzen diren hondar guztiak.
 - C. Esku hartzeko murrizketa partikularrak: azterketa xehatu bat eta arkeologikoa egingo da, behar bada, zonan edozein esku hartze mota egin aurretik; azterketa hori idazten ez den artean, gotorlekuaren ingurunea ezingo da aldatu 30 metroko erradio batean.
 - D. Nahitaezko lehengoratzak: ez.